

Hegazti-gripearen foku bat aitortu da Gipuzkoan

H5N1 HGOP hauteman dela baieztatu da Azpeitia eta Beasain artean aurkitutako sai arrebatean.

Sai arrea GFAko basozainek jaso zuten eta Urnietako Arizmendi Fauna Basatia Berreskuratzeko Zentrora eraman zuten. Han, beste sai arrebazuekin kontaktuan egon zen, eta horietako bat ere kutsatu zen.

Aurkikuntza hori hegaztien migrazio-aldian egiten den zaintzari esker egin da, Europa osoan fokuak agertu izanaren ondorioz. 2022ko maiatzaren 10ean, HGOPren 4.609 kasu aitortu dira Europako 36 herrialdetan, batez ere H5N1 anduia. Kasu horietako 2.167 etxeko hegaztienak izan dira, 2.356 hegazti basatienak eta 86 gatibu dauden hegaztienak.

Abereen osasunaren arloko osasun-agintariek, Euskadiko hegazti-sektorearekin batera, honako neurri hauek hartzea adostu dute:

- Animalien egoera klinikoa egiaztatzea, infekzioaren hautemate goiztiarrerako.
- Hegazti-ustiategietan biosegurtasun-neurriak indartzea, bereziki hegazti basatiekin harremanetan jartzea saihesteko neurriak. Besteak beste, etxeko hegaztiak konfinatzea gomendatu da.

Neurri horiek autokontsumorako ustiategiei ere aplikatu behar zaizkie, birusa zoonotikoa delako, nahiz eta **transmisio-arriskua txikia izan**.

Bestalde, gogorarazten da hegaztiak oinarri dituzten okela, arrautza, foie gras eta zeinahi elikagaik, kutsatuta egongo balira ere, ez luketela arriskurik ekarriko pertsonentzat.

Hurrengo estekan hegazti gripearekiko informazio guztia aurkituko duzu:

Indarrrik gabe geratzen dira ustiategien hegazti-gripeari aurre egiteko neurriak

AGINDUA, 2022ko apirilaren 1ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarenaren bidez, indarrrik gabe uzten da honako agindu hau: Agindua, 2021eko abenduaren 28koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripearen aurka hartu beharreko prebentzio-neurriak ezartzen baitira.

Gaixotasunak ez du inolako eraginik Euskal Autonomia Erkidegoan, hegaztien migrazio-denboraldia amaitu da, eta, ondorioz, gaur egun dagoen osasun-arrisku txikia denez, 2021eko abenduaren 28ko Aginduan aurreikusitako neurriak kendu behar dira.

Agindu hau, Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, hau da, 2022ko apirilaren 12an.

Behi-tuberkulosirik gabeko Euskadi

Europako Batzordeak berriki deklaratu du Euskadi behi-tuberkulosirik gabeko eskualdetzat.

Agintariak Batzordeari aurkeztutako informazioaren arabera, EAEn Mycobacterium tuberculosis (CMTB) konplexuaren bidezko infekziorako gaixotasunik ezaren estatusa aitortzeko baldintzak betetzen dira.

CMTB hiru patogenok osatzen dute: M. caprae, M. tuberculosis eta Mycobacterium bovis. Azken horrek behi-tuberkulosia eragiten du; zoonosi hori oraindik ere kezkarria da garapen-bidean dauden herrialdeetan.

EAEn kasuan, otsailaren 20az geroztik agertzen da eremu libre gisa 2021/620 (EB) Betearazpen Erregelamenduan (II. eranskina, I. zatia).

Horrek arrakasta dakar **administrazio publikoek eta abeltzaintza-sektoreak** urtetan egindako ahaleginaren ondoren, gaixotasuna desagerrarazteko **programan ezarritako abeltzaintza-saneamenduko kanpainen bidez.**

Hegazti-gripea: Euskadin prebentzio-neurriei buruzko agindu berria

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2022ko urtarrilaren 11tik aurrera indarrean (2021eko urtarrilaren 4ko Aginduan aurreikusitakoak) Euskal Autonomia Erkidegoan hegaztien eraginaren aurka hartu beharreko prebentzio-neurriak ezartzen dituen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko abenduaren 28ko Agindua argitaratu du.

[HGOPak Europan duen egoeraren inguruko informazioa jaso dugu](#), eta, horren arabera, orain dela hilabete batzuetatik birusa hedatzeko arriskua handitu da Europako hegoalde eta mendebaldean; izan ere, uretako hegazti basatiek migratu egin dute Europako ekialde eta iparraldetik.

Azken asteotan hainbat foku jakinarazi dira EBko hainbat herrialdeetako hegazti basati eta etxeke hegazti batzuetan; foku horien artean, azpimarratzekoak dira **Portugalgo** fokua eta **Landetako ahate-ustiategi** bateko agerraldia. **Horrez gain, 2022/01/04an MAPAk jakinarazi zuen [IAAP H5N1 aldaera detektatu dutela Soseseko \(Lleida\) hainbat hegazti basatitan.](#)**

Horrenbestez, eta hegazti migratzaileek etxeko hegaztiekiko izan dezaketen arriskuari aurre egiteko, beharrezkoa da **biosegurtasun-neurriak indartzea hegazti-bilduma eta oilategi guztietan (autokontsumorakoak barne).**

Ondorioz, **Sailak EAE osoan ezar daitekeen agindua argitaratu du;** ezar daitezkeen neurrien artean, azpimarratzekoak dira **ekoizpen-sistema estentsiboetan edota landako ekoizpen-sistemetan osasun-kontrolerako neurriak, biosegurtasuna indartzearen bidez:**

- Debekatuta dago hegaztiak (Anseriformes eta Charadriiformes aginduak) ehizaldian **basa-hegaztiak erakartzeko** amu gisa erabiltzea, agintaritza eskudunak baimendutako zenbait salbuespenekin.
- Debekatuta dago **etxeko hegaztiak aire zabalean** haztea, agintari eskudunak baimendutako zenbait salbuespenekin.
- Debekatuta dago hegazti basatiak sar daitezkeen **ur-andeletatik datozen etxeko hegaztiei ura ematea**, birusa inaktibatzekeo tratatu denean izan ezik.
- Debekatuta dago **animaliak kontzentratzeko zentroetan** etxeko hegaztiak edo gatibu hartutako beste hegazti mota batzuk egotea.
- Ehiza egiteko **ehiza-eremuetatik birpopulatzeko diren etxeko hegaztiak askatzeko**, dagokion foru-aldundiaren berariazko baimena beharko da, alde aurretik hala eskatuta eta aldeko emaitza izan duen arrisku-analisi batean oinarrituta, biosegurtasun-neurri egokiak aplikatu direla egiaztatu ondoren.

Neurri horiekin batera, hegazti-establezimenduetan (autokontsumorakoak barne) **erregistroak indartu dira, baita zaintza pasibo eta aktiboko sistemak ere.**

Agindua, 2022ko urtarrilaren 11tik aurrera baliozkoa, eta Aginduan hartutako neurriak aldatu edo kendu egingo dira, zirkunstantzia epizootikoak eta gaixotasunaren bilakaera kontuan hartuta.

Esne-behietan antibiotikoak zentzuz erabiltzeko gidak

Animalia Osasun Siletik, URAGAN proiektuaren barruan (*“Abeltzaintzan antibiotikoak zentzuz erabiltzea”*, Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomikorako, Jasangarritasunerako eta Ingurumenerako Sailak finantziatuta) eta Euskadiko Mikrobioen aurkako Erresistentzien aurkako Jarduera Programarekin (EAEko RAM) koordinatuta, esne-behien sektorean antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko gomendio-gida batzuk prestatu dituzte.

Bi dokumentu dira, bata abeltzaintzat eta bestea sektorean lan egiten duten albitarientzat. Testu honen amaieran dauden esteken bidez pdf bertsioetara sar zaitezke.

Agindu berria: Hegazti-Gripearen aurkako neurriak kentzea

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2021eko martxoaren 3ko Agindua argitaratu du, zeinaren bidez kentzen baitira 2021eko urtarrilaren 4ko Aginduaren bidez autonomia-erkidegoetan hegazti-gripearen aurka ezarritako neurriak.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2021eko martxoaren 3ko Agindua argitaratu du, zeinaren bidez kentzen baitira 2021eko urtarrilaren 4ko Aginduaren bidez autonomia-erkidegoetan hegazti-gripearen aurka ezarritako neurriak.

Honako hauek handitzeko helburuarekin hartu ziren neurriok:

- biosegurtasuna
- erregistroak eta datu-baseak
- zaintza aktiboa
- zaintza pasiboa

2020an oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen hainbat foku agertu ziren EAetik igarotzen diren hegaztien migrazio-bide berberak erabiltzen dituzten estatu kideetako eskortako hegaztietan, hegazti basatietan eta itxian hazitako hegaztietan, eta horrexegatik hartu ziren neurri horiek.

Autonomia-erkidegoetan, aintzat hartu dira egoera epizootikoa, gaixotasunaren bilakaera eta honako faktore hauek guztiak:

- gaixotasunak ez du inolako intzidentziarik
- bukatu egin da hegaztien migrazio-sasoia
- une honetan, arrisku sanitarioa txikia da

Horregatik guztiagatik, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak aho batez erabaki dute debekua altxatzeko gomendatzea.

Europar oso patogenoa den H5N8 Hegazti-Gripearen egoeraren eguneratzea

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, eta bertan, Frantzia, Belgika eta Suedian oso patogenoa den hegazti-gripearen lehenengo kasuak antzeman direla adierazi du. MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, eta bertan, Frantzia, Belgika eta Suedian oso patogenoa den hegazti-gripearen lehenengo kasuak antzeman direla adierazi du.

Europar hegazti-gripearen agerraldi berrien egoerari buruz [2020/11/06an argitaratutako eguneratzearen ondoren](#), MAPAk **beste ohar bat** argitaratu zuen 2020/11/17an. Ohar horretan eguneratu egin du gaixotasun horren egoera eta **agerraldi guztiak bildu ditu, Frantzia,**

Belgikan eta Suedian izandako lehen kasuekin batera.

ADNS erakundeak **oso patogenoa den (IAAP) hegazti-gripearen** fokuen **268 jakinarazpen** jaso ditu udazken honetan, **2020/10/17an** Holandan beltxarga mutu baten lehen kasua baieztatu zenetik. Besteak beste:

- 211 Alemanian
- 38 Herbehereetan
- 8 Danimarkan
- 5 Erresuma Batuan
- 5 Belgikan
- 1 Irlandan

H5N8 azpimota da gehien antzematen den (252 foku) oso patogenoa den hegazti-gripearen birusa, eta **EURLren** arabera, **uztailean Errusian eta Kazakhstanen** antzeman zen berbera da, baina **2020ko lehen erdian** EBn zirkulatu zuenaren **bestelakoa**.

Jakinarazitako foku guztien artetik, hau azpimarratu behar da:

- 255 foku hegazti basatietan jakinarazi dira
- 12 foku kortako hegaztietan
- 1 foku hegazti gatibuetan.

Frantziako agintariek gaur jakinaraziko dute oso patogenoa den hegazti-gripearen lehen fokua Korsikan hegazti gatibuetan, baina **dagoeneko adierazi dute zein neurri** hartuko dituzten arrisku-eremuetan gaixotasun horri aurre egiteko; hain zuzen, hauek izango dira:

- Kortako hegaztiak konfinatzea.
- Hegaztien pilaketa debekatzea.
- Ehiza-hegaztiak garraiatzea eta askatzea debekatzea.
- Ehizatzeoko apeuak erabiltzea debekatzea.

Frantziako fokuaren **hurbiltasunak eta hegazti basatiek gure lurraldean dituzten migrazio-ibilbideek handitu egiten dute arriskua maila handi/ertainera, MAPAk 2020/11/11n adierazi zuen moduan.**

Horren ondorioz, **hainbat neurri zehatz hartu behar izan dira APA 2442/2006 Aginduaren II. eta III. eranskinetan jasotako udalerrietan, eta agindu horretan jasotako hainbat udalerriri eragiten diete Euskadin.**

Udalerrri horietan, datozen asteotan aplikatuko dira neurri horiek. Autonomia mailan, **Arabakoak dira** agindu horretako II. eta III; eranskinetan **arrisku bereziko** eremu gisa sartu diren **udalerrriak**. Hauek dira:

- **Arratzua-Ubarrundia**
 - **Barrundia**
 - **Elburgo/Burgelu**
 - **Legutio**
 - **Zigoitia**
-

Jakinarazpena: Espainian hegazti-gripearen arrisku handia/ertaina

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, eta, bertan, jakinarazi du hegazti-gripearen zirkulazioaren arriskua handia/ertaina dela, Europan gaur egun gaixotasun horrek duen egoera aintzat hartuta; hortaz, hainbat zaintza- eta kontrol-neurri ezarri ditu. Euskadin, gaixotasun hori sartzeko arrisku bereziko eremu hauek ezarri dira: Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Legutio eta Zigoitia.

Europan (Holanda, Alemania eta Erresuma Batua) duela gutxi gaixotasun horren inguruan gertatutako agerraldien egoerari buruz [2020ko azaroaren 4an argitaratutako](#) eguneratzearen ostean, MAPAk beste ohar bat argitaratu du. Ohar horretan, Espainian birusa sartzearen arriskua aztertu du. Honako hauek dira ondorioak:

1. **Arriskua handia da APA/2442/2006 Aginduaren II. eranskinean arrisku bereziko eremu gisa sartutako udalerrietan.**
2. **Arriskua ertaina da agindu horren II. eranskinean zaintza bereziko eremu gisa sartutako udalerrietan.**

Eta, ondorioz, MAPAk uste du beharrezkoa dela hainbat neurri espezifiko hartzea [APA/2442/2006 Aginduaren](#) II. eta III. eranskinetan zehaztutako udalerrietan. Honako hauek dira neurriak helburuak:

- **Biosegurtasuna sendotzea:** kontaktu zuzena edo zeharkakoa ekiditea kortako hegaztien eta hegazti basati migratzaileen artean.
- **Zaintza pasiboa sendotzea,** bai hegazti-ustiategietan, bai hegazti basatiei dagokienez.
- Eranskinetan sartutako udalerrietako **hegazti-ustiategiei buruzko datuak eguneratzea.**
- **Aldian-aldian kontrol sanitarioak eta analisiak egitea** arrisku-ebaluazioaren arabera.
- **Debekatzea kortako hegaztiak egotea animaliak biltzen diren zentroetan.**

Autonomia mailan, **Arabakoak dira** agindu horretako II. eta III; eranskinetan **arrisku bereziko** eremu gisa sartu diren **udalerriak**. Hauek dira:

- **Arratzua-Ubarrundia**
- **Barrundia**
- **Elburgo/Burgelu**
- **Legutio**
- **Zigoitia**

Aginduak, **halaber**, Araban hegazti-gripea sartzeko arrisku bereziko eremutzat hartzen ditu hezegune hauek (nahiz eta ez duen neurri espezifikorik ezarri): **Salburuako baltsak, Zadorra urtegia eta Santa Engrazia urtegia.** Azkenik, aintzat hartuta **hegazti horien migrazio-bideak gure lurraldetik oso hurbil daudela, oso-oso garrantzitsua da azpimarratzea puntu hauek sendotu egin behar direla:**

- Susmo guztiak berehala jakinaraztea administrazio eskudunari (foru-aldundiak).
- Hegazti basatiekiko kontaktu zuzena eta zeharkakoa saihestea.
- Zaintza pasiboa, hegazti-ustiategietan eta hegazti basatiei dagokienez.
- Abeltzainak, ustiategietako albitariak, ehiztariak eta, oro har, herritar guztiak sentsibilizatzea

oso patogenoa den hegazti-gripeari, horren aurkako neurriei, eta hegazti gaixo edo hilen berri emateko mekanismoei buruz.

Murrizketa-neurri berriak, mingain urdinaren 8 serotipoaren foku berriak direla eta

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, Nafarroa, Gipuzkoa eta Huescako ustiategietan mingain urdinaren 8 serotipoaren 4 foku agertu direla jakinarazteko. Hori dela eta, murrizketa-eremu berriak ezarri dira serotipo horren aurkako txertaketarako.

Aragoiko Gobernuak atzo konfirmatu zuen mingain urdinaren serotipo hori detektatu dela Broto udalerriko (Huesca) behi-ustiategi batean. Azken hori zenbatuta, lau dira jada aurreko urteko urriaren 21etik deklaraturako fokuak. Nafarroan detektatu zen aurreko urtean animalien gaixotasun hori lehen aldiz, penintsulan 10 urtez desagertuta egon ostean. Ondoren, 2020/10/29an, bi foku jakinarazi ziren, bat Orreagan (Nafarroa) eta beste bat Aian (Gipuzkoa).

Horiek horrela, beharrezkoa da murrizketa-neurri berriak ezartzea, hiru autonomia-erkidegoetako hainbat eskualderi eragingo dietenak. Datozen egunetan argitaratuko dira, Ministerioaren Agindu bidez. Agindu horretan, murrizketa-eremu bat ezarriko da deklaraturako 4 fokuen inguruan; eta, leku horietan, honako neurri hauek ezarriko dira:

- Mingain urdinaren 8 serotipoaren aurkako nahitaezko txertaketa ezartzea 3 hilabetetik gorako ardi eta behi guztientzat.
- Gaixotasunarekiko sentikorrak diren animalia-espezieen lekualdatzeak murriztea.
- Zaintza pasiboa indartzea, eta edozein susmo jakinarazteko gomendioa zabaltzea.
- Hausnarkari-ustiategietan intsektuak hiltzeko jarduketak indartzea.

Abereak gaixotasun horren aurka babesteko protokoloak ezarri egiten du txertoa eman behar dela nahitaez fokuen inguruko 50 kilometroko eremuan; gainerako eremuetan, boluntarioa izango da. Maila autonomikoan, horrek Gipuzkoako ia lurralde osoari eragingo dio, eta Bizkaiko eta Arabako lurraldearen zati bati.

Edonola ere, azienda osoaren osasuna bermatze aldera, eta sektorean izan ditzakeen eraginak murrizteko, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiek nahitaezko txertaketa ezarri dute beren lurraldeetako behi eta ardi guztientzat, eta beren gain hartuko dute txertoen kostua. Arabako Foru Aldundiak, bere aldetik, babes-eremuko txertaketa bere gain hartuko du, eta txertaketarako borondatezko kanpaina bat sustatuko du lurralde osoan.

Q Sukarraren kontrola eta zaintzarako Euskadiko Plana

Gaur argitaratu da Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren 2020ko otsailaren 19ko Ebazpena, zeinaren bidez onartzen eta jakitera ematen baita Euskadin Q Sukarra Zaintzeko eta Kontrolatzeko Plana.

Plan horretan biltzen dira hainbat ekimen biltzen ditu, zehazki honako hauek: Euskadiko ardi- eta ahuntz-aziendaren gaixotasunaren jarraipena egiteko, arriskua ustiattegietan kontrolatzeko eta animaliekin kontaktua duten langileak prestatzeko eta sentsibilizatzeko.